



## DONOSTIAKO ANTONIO MARIA LABAIEN PLAZAKO URMAELEKO IRLATXOAN, BASAHATEAREN HABIA SUNTSITU DUTE

Ohikoa, urtero bezala. Duela aste pare batetik, Antonio Maria Labaien plazako (lehen, Santa Katalina plaza), urmaeleko irlatxoan kolka (inkubatzen) zegoen. Jaiotzak martxoaren amaierarako aurreikusita zeuden.

Ez da eklosiorik izango, ez ilusiorik, ezta ondotik pasatzen den jendearen irribarrerik ere. Udaleko lorezaintzako azpikontratak, inolako beharrik gabe, irlatxo zirkularreko landaredia kendu du eta arrautzak enbrioia barruan egonda, uhartetxotik kanpoko loreen artean barreiatu du. Jendea haserretu egin da eta langileei errieta egin die.

Hau ez da Santa Klara uhartea; apartako eremu horren goiko belardian, itsas hegaztien habiekin orain Donostiako erdialdean ahateekin egin dutena urte luzez errepikatzen eta biderkatzen dute, inork ikusteko eta aurpegiratzeko aukerarik ez dagoenean. Plazako irlatxoan landare belarkarak desagerrarazi ondoren, dagoen urkia mozteko prestakizunak aurreratu dituzte. Urte gutxiren buruan han landatuko duten laugarren urkia izango da. Estrategia urki osasuntsu eta lirain bat landatzea da, handik gutxira lepatzea edo mutilazio (ez inausketa) ikaragarri bat burutzea, heriotza geldo eta segurua sortaraziz. Aldez aurretik pentsatutako esku-hartze horrek aparteko eta beharrezko ez den lan bat sortarazten du, gastu publikoa emendatuz eta estolda-zulotik joaten den diruaren emaria areagotuz.

Orain, basahate emea, bi arren aldamenean, inguruan zain dago. Habiara itzuli nahi du, baina ez dago habiarik, ez arrautzarik, ez urik urmaelean. Etxean egurrezko arrapala bat duen eta urtero kumeak jaiotzen direnean irlatxoan jartzen eta atontzen duen bihotz handiko andrea ere, triste egongo da. Datorren martxoaren 20an Txautxaba\* edo Txolarrearen Munduko Eguna ospatuko da. Urtetan eta ilunabarrero txautxabak lepatu eta inausi gabeko urkira lo egitera joaten ziren, urmaeleko irlatxoak eta urkiaren altuerak babesa eskaintzen baitzieten. Aspaldiko partez, eta praktika txar hauek eraginda, txautxabak ere beren lo egiteko zuhaitzetik kanporatuak izan ziren.

Udalaren jarrera aldatzea premiazkoa da, basa-bizitza gutxieteko politikak alde batera utzi eta animalien eta bioaniztasunaren errespeturantz abiatu, bai eta herritarren arteko komunikazio osasuntsua eta arina hobetu ere, gizarte hobe baterantz aurrera egiteko aldera.

*\*Txautxaba: Pasai Donibanen txolarreek jasotzen duten izena.*

Eguzki & Parkea Bizirik

Donostia, 2022ko martxoaren 14a



*Zuhaitz osasuntsuak erosi, landatu, lepatu (mutilatu), moztu eta berriro errepikatzen. 2022.03.14*

eguzki eguzki eguzki



Parkea bizirik  
k u k u l u n b e r a



*2022.03.14. Udalaren lorezaintzako azpikontratak bashatearen habia irlatxotik atera eta lurlean barreiatu du.2022.03.14*



*Ahateek habiara itzuli nahi dute, baina negoziaren eta fakturazioaren truke solik atsekabea aurkitzen dute (2022.03.14)*



eguzki<sup>ak</sup> eguzki<sup>ak</sup> eguzki<sup>ak</sup>

Parkea bizirik  
kukulunbera



*Mutilazioaren negozioaren aurreko argazkia, berriro mozteko, erosteko eta aldiro landatzeko. Urkia txolarreentzako lo egiteko ohiko lekua zen. 15 urte baino gutxiagoan irlatxo berean landatzen duten 4. urkia izango da (2006-03-01).*



eguzki<sup>ak</sup> eguzki<sup>ak</sup> eguzki<sup>ak</sup>



Parkea bizirik  
k u k u l u n b e r a



*Basahate emea eta bere txitak Antonio Maria Labaien plazako urmalean 2018.05.04*

Eguzki & Parkea Bizirik

Donostia, 2022ko martxoaren 14a